



eta besteak zelaian lasai. Denek izan zuten, ordea, non ongi pasatu.

Leire, Idoia, Maider eta Haizea Kiroldegi gunearen bila ero moduan aritu ziren aurrera eta atzera. Kontzertuak hastear ziren, eta ez zuten akorde bakarrik galtzeko asmorik. Urduri zeuden laurak, beraientzat ez zen lehen Kilometroak, baina bai, gurasorik gabe, koadrilan, ospatzen zuten lehena. Gazte asanbladak antolatutako autobusean izena eman, jana eta edaria erosi, eta Bergararako bidean jarri ziren goizean, parrandaxo polita egiteko asmoarekin.

Hainbat jende ikastolen aldeko jaiak ongi pasatzearekin lotzen dituen arren, helburu zehatz ugari egon ohi dira gisa honetako jaialdien atzean.

Aurtengoan, Aranzadi ikastolaren izaerarekin eta filosofiarekin lotu nahi izan dute, eta horrexegatik elkarlana da gehien nabarmendu nahi izan duten balorea. Elkarlanean antolatu baitute bai atzoko eguna, bai egun horren atzean egon den prestakuntza osoa.

Helburu zehatzei erreparatuta, ordea, hiru mailatan bereizi dituzte antolatzaileek eskuratu beharreko xedeak.

Erraldoiek ere euren agerraldia egin zuten Bergaran. Eskubian, frontoian egindako ekitaldia.

Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Lehen ingurunearekin dago lotuta. Kilometroak ikastolen jaia izateaz haratago, herriaren festa izatea nahi zuten Aranzadiko kideek, eta xede hori lortzeko lan andana egin dute urte osoan, ondorioz, Bergara eta ikastolaren arteko elkarkidetzaz dezentetako trinkotu da.

INSTALAZIOAK BERRITZEA

Bigarren xedeak, ikastolek Euskal Herrian duten heziketa proiektuarekin du lotura. Ikastolen mugimendua bere horretan, eta bere proiektua ezagutzera eman nahi dituzte. Gainera, Kilometroak baliatuz, Euskal Herriko lurralde guztietako ikastolek elkartzeko bideak sustatu nahi izan dituzte, ikastolen arteko kohesioa eta elkarkidetzaz areagotzeko.

Baina, jakina, helburu horiek guztiak praktikara eramateko dirua beharrezkoa da, eta Aranzadi ikastola ez da horretan salbuespena.

Egun Aranzadik erabiltzen dituen instalazioak, Errege Seminarioan eta Martinez de Iralan daude banatuta. Atzo jasotako dirua, ordea, batez ere ikastolak lehenean erabiltzen dituen instalazioak berritzera bideratuko dute.

Atzokoa 24 orduko eguna izan zen, ez gehiago, ezta gutxiago

ere. Baina, milaka eta milaka pertsonak egun zoragarria igaro dezaten hainbat eta hainbat lagunek urte osoan egin dute lan.

Kilometroak bezalako jaiak ez in dira aurrera atera boluntario gabe, edizioak errealitate bilaka daitezke urtero 1.500 eta 2.000 laguntzaileen beharra baitu. Batzuek soilik egun batez egiten dute lan, egunean bertan hain zuzen ere. Beste batzuk ordea, urte osoan zehar aritzen dira lanean, eta horiek lan taldeetan antolatuta egon ohi dira.

Segurtasuna, muntaiak, trafikoa, garbiketa, txosna, arropa saltzea, jasotzea... berdin dio zertan, baina euskara eta ikastolen alde lan egiteko prestutasuna duten milaka pertsona aritzen dira, bai Gipuzkoan eta baita Euskal Herrian ere. Horiei esker bizi dira egun bai ikastolak, baita neurri batean euskara bera ere.

HURRENA, IRURAN

Eguerdian partean egindako omenaldian Aranzadi ikastolako gurasoak omendu zituzten. Guraso oro izan da ekitaldiko protagonista: izan direnak, direnak eta izango direnak ere bai.

Kilometroak'07k agur esan dio jada Euskal Herriari, baina beste edizio bat etorriko da aurki eta Irura izango du agertoki.



Aurtengo edizioak agur esan badigu ere, lekuko hartua dago. Hurrengo zita Iruran izango dugu, 364 egun barru